

Istripu eta herriratze aseguruaren kontratazioa

Aseguru bat kontratatu behar dute, abiatu aurretik, nazioarteko mugikortasuna egin nahi duten UPV/EHUko ikasle guztiek

HORI JASOTZEN DUEN ARAUDIA

[Erasmus - 2022-23ko deialdia](#) "Nahitaezko Dokumentazioa" atala.
[AL eta Beste Norakoak - 2022-23ko deialdia](#) - "Nahitaezko Dokumentazioa" atala.

KONTRATU BEHARREKO ASEGURU MOTA

ONARTUTAKO PLAZARAKO aurreikusitako EGONALDI OSOA estaltzen duten **bidaiako laguntza aseguru oro**. Honako hauek jaso beharko dituzte, nahitaez:

- Gaixotasunagatiko eta/edo istripuagatiko **mediku arretako** ohiko kontingentziak.
- Estaldura MUGAGABEA **herriratze gastuetarako heriotza gertatuz gero**, eta **jatorrizko herrialdera joateko osasuna dela eta**.

*UPV/EHUK [IBILI ASEGURUA](#) kontratatzeke aukera eskaintzen du. Edonola ere, edozein aseguru kontratatu aurretik, harrerako unibertsitatearekin unibertsitate horrek eskatzen dituen **gutxieneko osasun-estaldurak baieztatzea** gomendatzen da.

ZER AURKEZTU EUSKALHERRIKO UNIBERTSITATEA N

1. **IBILI** aseguru kontratatzen bada, "**El resumen de tu seguro**" izeneko orria aurkeztu behar da.
2. **Bestelako aseguru bat kontratatuz gero**, aseguruaren kopian honako **datu hauek agertu beharko dira**:
 - *Aseguratutako pertsona*ren datuak (ikasleen datuak).
 - Aipatutako *nahitaezko estaldurak*.
 - Indarraldi *eremua* eta *estaldura aldia*.
 - Aseguru ordaindu dela egiaztatzen duen *banku egiaztatgiria* aurkeztu beharko da.

NOIZ ETA NON AURKEZTU ASEGURUA

Mugikortasuna hasi **AURRETIK**, **Ikastegi bakoitzeko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzaileari** aurkeztu behar da.

GARRANTZITSUA: ez dira akordio akademikoak sinatuko aseguru entregatu arte.